



Gorago ▲

- | Zer egin neguko asteburuetan
- | Segapotoak hizpide
- | Sagardoetxea
- | Reala: Xabi Castillo
- | Loiolako hipika
- | Gazteak zimenara
- | Euskarazko Produktuen Gida
- | Miren Urbietea. Kantuaz bizitzea
- | Aitor ikastola
- | Idazlana: Hil eta gero, zer
- | Hirugarren bitzta
- | Kalapie elkarte
- | Marrazkiak
- | Experimentua: xadufa
- | Esperimentua: kolore dantza
- | Denbora-pasak 1
- | Kirola: Leire Olabarria
- | Nondik dator energia
- | Ulia mendia
- | Poloetako izotza
- | Agenda 21
- | Denbora-pasak 2
- | Internet: helbide interesgarriak
- | Teknologia berriak
- | Berri on
- | Txistekak
- | Filmak
- | DVDak
- | Jokoak
- | Musika
- | Liburuak
- | Horoskopoa
- | Komikia



Donostia auzoka ■ ■



Ikasleak gustura ibili ziren Sagardoetxean

Astigarragako Sagardoetxean

Joan den urrian, 6. mailako ikasleok Astigarragan dagoen Sagardoetxeak antolaturiko lehiaketan parte hartu genuen. Hizkuntza eguna zen, eta lehiaketak sari ederrak zituen: Sagardoetxerako hamabi sarrera, pintxoak dastatzea, eta sagardoa, noski. Museoa ikusteko aukera ere izan genuen.

Sagardoetxean burututako ekintza nabarmenenak honako hauek izan ziren:

- Museoa ezagutu.
- Gure herriko sagarrondoaren egoera ezagutu, bertako arduradunek emandako azalpenen esker. Haziak eta sagarrondoak ukitu, ikusi eta "aztertu" genituen.
- Sagardoa egiteko erabiltzen diren tresnak ezagutu. Tresna hauek nola erabiltzen diren azaldu ziguten, sagarrak nola bildu eta txikitu, nola muztioa atera. Dastatu ere, egin genuen.
- Bideoa ikusi. Garai bateko lana eta tresnak gaur egungoekin konparatu.
- Sagardoa dastatu.
- Gure kasuan, adin txikikoak garenez, muztio dastatzea egin genuen, eta sagardoa helduentzat utzi genuen.
- Salgai dauden produktuen berri izatea. Eskaintza zabala da: inguruan dauden sagardotegietako sagardoa eta beste produktu batzuk saltzen dituztelako.

Eguraldiak ez lagundu arren, primeran pasatu genuen, azalpenak oso argiak izan zirelako. Beste hizkuntzetako hitz batzuk ere ezagutu genituen, eta sagardoaren prozesu osoan parte hartzeko aukera izan genuen; sagar bilketarekin hasi, eta muztio dastatzearekin bukatu.

Lehen oso hizkuntza gutxitan genekien "sagar" hitza, hain zuzen, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Orain, berriz, munduko beste hizkuntzetan nola esaten den jakiteko aukera izan dugu, adibidez: dafah (berebera), pomme (frantsesa), mela (italiera)... Ekintza hauetan, Sutan Blai Programako langileak izan genituen alboan, grabaketa lanak egiten. Guk burututako ekintza guztiak grabatu ondoren, ETB1eko programan ikusteko

aukera ere izan genuen.

Arantzazuko Ama LH



Sagardoetxea



Sagarra zanpatzen

Testuen Sailkapenerako Kodeak:

Testu Erraza ■ / Testu Normala ■■ / Testu Zailagoa ■■■ / Testu Zailena ■■■■

<<< Aurrekoa Hasiera | Hurrengoa >>>

